

## BIGARREN HEZKUNTZA PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Jarduera didaktikoekin osatutako txostenaren bigarren zati hau ikasleek desnutrizioa jasaten duten milioika neska-mutilen errealitatea gertutik ezagutzeko planteatuta dago, ikasle bakoitzak bere inguruneari konta diezaion ekintza solidarioaren bidez nola lagunduko dien haur horiei.

Ikuspegi metodologikoa, beraz, beste errealitate batzuk EZAGUTU, bere ingurunean KOMUNIKATU eta EKITEA dira.

Helburu orokorrez eta espezifikoez gain, jarduera horiek eta ekintza solidarioak LOMLOE legean bildutako gaitasunak garatzen lagunduko diete:

### HELBURUAK:

Ikuspegi hori gauzatzeko, ikus-entzunezko multzo bat aurkezten dizuegu, baita ikasleekin hainbat gai lantzeko pedagogia-proposamenak ere:

1. Gosea eta desnutrizioa ezagutzea
2. Auzi hori mundu-mailako arazo bihurtzen duten zenbakiak ulertzea
3. Ikasleak konponbide gisa jartzea munduaren aurrean
4. Desnutrizioa prebenitu eta harekin amaitzeko laguntza humanitarioa ulertzea

Kausa humanitarioak ulertzeaz gain, gizarte-kontzientzia lortzea ere landu dezakezue ikasleekin:

1. Enpatiaren, justiziaren eta bizikidetzaren balioak indartuz.
2. Ohitura osasungarriak eta janaria alferrik galtzearen aurkako jarrerak bultzatuz.
3. Bakearen eta gizarte-justiziaren aldeko kultura baten alde eginez.

### EDUKIAK ETA PEDAGOGIA-PROPOSAMENA:

Jarduera hauek zuzenduta dagoen etaparen arabera bereizita daude. **Eskola-ordu bat edo bi erabil ditzakezue, hausnarketarako** prestatu ditugun bideoak erabiliz. 9 eta 16 urte bitarteko haurrei modu didaktikoan eta adin horretara egokituta desnutrizioa zer den, zein motatako desnutrizioak dauden eta munduan zenbat pertsonak jasaten duten azaltzen da, baita desnutrizioa prebenitzeaz eta sendatzeaz arduratzen diren pertsonak zein diren ere. Azkenik, zuen laguntzari esker, Save the Children-ek, bai eta beste

lankidetzak-erakunde batzuek ere, nola jarduten duten azaltzen dizuegu xehe. Amaieran, bideo osagarri bat edukiko duzue, non klima-aktibista gazteek gosea eta Somalia, Kenya eta beste herrialde batzuk gogor kolpatzen dituzten hondamendi naturalak lotzen dituzten.

Bestalde, gehiago sakondu nahi izanez gero, jarduerak egin ditzakezu, bideoak ikus ditzakezu eta ekintza solidario bat eginez amai dezakezue, ikasle guztien partaidetza eskatzen duen proiektu zabalago bat bihurtuz. Jarduera hauek modu independentean planteatzen dira, baina osagarriak dira, eta irakasleak elkarren artean koordina daitezke **hezkuntza-proiektu** bat bilatzeko.

**“ELKARRIZKETA-MAHAIA: URA ETA JANARIA GUZTIENTZAT”** 12–18 urte. 50 minutu.

### Helburuak

- Burkina Fasoko populazioaren zati handi baten errealitate soziofamiliarra ezagutzera ematea.
- Eskubideen berdintasuna defendatzeko elkarrizketa eta hausnarketa erraztea.
- Desabantaila-egoeran dauden populazioen garapena babesteko ekintzak sortzea bultzatzea.

### Gaitasunak

Errealitatea eraikitzeak eta paperen interpretazioak komunikazio-, adierazpen-, elkarrekintza-prozesuak eta iritzi eta ideien trukea babesten laguntzen dute. Talde-lanak mundua aztertzea, ulertzea, hausnartzea, hautematea eta interpretatzea errazten du, eta desberdintasunei eta zailtasunei buruz kontzientziatzea. Partaidetzak, erabakiak hartzea, arrazoinamendu kritikoak, jarrera eraikitzaileak, errespetuan oinarritutako posizio etikoak eta eskubideen berdintasunak ekintzaitzaren eta gaitasun sozial eta zibikoen garapena bideratzen du.

### Metodologia

Jardueraren garapenean rol-jokoaren talde-dinamika eta eztabaidatzeko mahai-ingurua konbinatu dira, errealitate horiek ezagutzea erraztuz eta jardueran parte hartzen dutenen iradokizunak eta babes-ekintzak aktibatuz.

### Materialak

- Partekatze-rolak (ikus 3. eranskina)
- Papera eta boligrafoak mahaikideentzat eta aholkulari-taldeentzat

## Jardueraren garapena

### *Aurkezpena (5 min)*

Irakasleak azalduko du nola Somalia, Niger eta gisako herrialdeetan ur edangarriaren faltak, lehorteeak, elikagai eskasiak, saneamendu-sistema zaharkituek eta haurren desnutrizioak haur askok bizitzeko zailtasunak edota bizirauteko nolako lanak sortzen dituzten. Asko ez dira 5 urte betetzera iritsiko, eta prebenitu eta senda daitezkeen gaixotasunengatik hiltzen dira, adibidez, beherakoa, elgorria edo desnutrizioa.

Egoera horrekin amaitzeko desberdintasunen aurka borrokatu behar da eta neska-mutil guztien eskubideak ziurtatu behar dira.

### *Elkarrizketatu egingo dugu konponbideak aurkitzeko (15 min)*

Zazpi boluntario eskatuko ditugu jardueran parte hartzen dutenen artean. Talde horrek elkarrizketa-mahaia eratuko du, Somaliako ur eta elikagai eskasiari buruz. Helburua elkarrekin han bizi diren eta desnutrizioa duten haurren bizitza hobetzen lagunduko duten proposamenak aurkitzea izango da. Mahaiko kide bakoitzak rol bat izango du, eta rol hori esleitzeko, mahaiko kide bakoitzari izango duen papera adierazten duen txartela banatuko diogu.

Mahaia osatzen duen kide bakoitzari bere burua aurkezteko eskatuko diogu tokatu zaion txartela irakurri.

Ondoren, proposamenak lantzen lagunduko dieten aholkulari-talde bat osatzeko proposatuko diegu. Taldeak osatzeko, txandaka, ikaskideak aukeratzen eta deitzen joango dira, guztiek aholkulari-talde bat osatu eta talde bakoitza toki batean jarriko da gelan.

### *Elkarrekin helburu baten alde (30 min)*

Talde bakoitzak 3 minutu dauzka elkarrizketa-mahaian aurkeztuko duten proposamen bat pentsatzeko.

Ondoren, talde bakoitzak gainerako mahaiari bere proposamena aurkeztuko dio eta gainerako taldeek egin ote litekeen eta ordezkatzeko tokatu zaien jarreratik proposamen horri zein ekarpen egin diezaioketen adieraziko dute.

Talde bakoitzari proposamenak eta ekarpenak azaltzen zaizkion heinean, gelan jarrita geratuko den horma-irudian itsats ditzakegun. Horrela, gogora ekarriko dugu parte hartzeko eta kolaboratzeko modu asko daudela helburu komun bat lortzeko: pertsona guztientzako bizitza duin bat ziurtatzea.

### Jarduera egiteko iradokizunak

Aurreko egunean, Somaliari buruzko informazioaren bilaketa landu daiteke (edo Afrikako Adarra osatzen duten gainerako herrialdeei buruzkoa), jarduera testuinguruan kokatzeko. Aholkulari-taldeek elkarrizketa-mahairako iradokizunen bigarren txanda bat egin dezakete.

Teknika plastikoak, bisualak eta ikus-entzunezkoak erabilia (kartelak, girotzea, bideo-grabaketak...) asko aberasten da dinamiken prozesu metodologikoa.

### Ebaluazioa

Jarduera amaitzean, taldean hausnartzeko galdera batzuk egin daitezke:

- Nola sentitzen zara mahaiko partaide gisa?
- Mahaiko kide guztiak garrantzitsuak zirela uste duzu?
- Arazo komun bat konpontzeko ikuspuntu desberdinak entzutea garrantzitsua da?

### III. eranskina: “Elkarrizketa-mahaia:

“Somaliako guraso bat zara. Aurten bi aldiz joan behar izan duzu 70 km-ra dagoen osasun-etxe batera, bi seme-alaba deshidratatuta zaudelako beherakoaren ondorioz. Osasun-etxera iritsi zinetenean, bietako bat artatzeko sendagaiak besterik ez zeudela esan zizuten.”

“Somaliako ahuntzain bat zara, eta zure abere ia guztiak hil egin dira. Azken urteetan ur gutxi dago, lehorteak eraginda.”

“Somaliako politikari bat zara, eta herrialdeko ezegonkortasun politikoak eta matxinadek kezkatzen zaituzte. Biztanle gehienek elikagaien, uraren eta osasunaren behar larriak konpontzeko aurrekontua ez da nahikoa.”

“Somaliako mediku bat zara. Osasun-etxera desnutrizioak jotako haurtxoekin oso urrunetik datozen amak ugaritu egin dira. Arazoa da askotan ez daukazula tratatzeko behar adina sendagai.”

“Somaliako irakasle bat zara. Eskolara joaten diren haur gehienak ez daukate behar beste janari etxean, eta desnutrizioa arazo handi bat da. Askok behar baino pisu gutxiago dutela eta, gainera, eskoletako erritmoari jarraitzea kostatzen zaiela ohartzen zara, arreta-maila oso txikia dutelako.”

“Somaliako ama bat zara eta 3 seme eta 2 alaba dituzu. Alaba nagusiak 7 urte ditu. Egunero 6 kilometro egiten ditu familiari ur edangarria ekartzeko.”

“Zure herrialdeko gobernuko kidea zara. Zure herrialdeko herritarrengan eragina duten arazoez gain, baliabide gutxiago eta modu duin batean bizitzeko zailtasun gehiago dituzten beste herrialde batzuetako pertsonen alde borrokatu behar dela uste duzu. Horregatik, zure herrialdean nazioarteko lankidetzaren garrantziaren berri ematen saiatzen zara, eta Somaliara eta egoera berean dauden herrialdeetara laguntzak bideratu”.